

APAIZ BATEN ETA HILZORIAN DAGOEN BATEN ARTEKO ELKARRIZKETA



D.A. FRANÇOIS DE
SADE
(MARKESA)

© Marjinalia Bilduma
Itzulpena: X. Galarreta
1999. urtea (abuztua)
Lege-Gordailua: SS-893/99

APAIZA

Zorigaiztoko une honetara helduta, non ilusioaren errezela urratzen baita gizon galdua jartzeko bere akatsen eta bere bizioen ikuskizun krudelaren aurrean, ez al zara damu, nire seme hori, giza-ahuleziak eta hauskortasunak behin eta berriz eraman zaituzten desordenuez?

HIL ZORIAN DAGOENA

Bai, lagun, damu naiz.

APAIZA

Bada orduan balia zaitez geratzen zaizun denbora apurraz zerutik lortzeko, zorioneko bihotz-zimiko horien bitartez, zure bekatuen absoluzio orokorra; eta kontuan izan ezen penitentziaren sakramentu txit santuaren bitartekaritza bakarrik posible izango zaizula Beti-Irauten-Duenarena lortzea.

HIL ZORIAN DAGOENA

Ez zaitut ulertzen zuk ulertu nauzuna baino gehiago.

APAIZA

Zer!

HIL ZORIAN DAGOENA

Damu nintzela esan dizut.

APAIZA

Entzun dizut.

HIL ZORIAN DAGOENA

Bai, baina ulertu gabe.

APAIZA

Zer esan nahi zenuen bada?

HIL ZORIAN DAGOENA

Azalduko dizut... Izadiak oso jaidura biziekin eta oso grina gogorrekin sortu nau; mundu honetan nago horientzat¹ bizi eta gozatzeko. Nire izatearen berezitasun hauek izadiak dituen oinarrizko asmoen araberakoak direnez —edota nahiago baduzu, dituen legeak kontuan harturik nigan proiektatzen dituen asmoen funtsezko deribazioak direnez—, bakar-bakarrik damu naiz horien guztiahaltasuna behar bezala baloratu ez izanaz. Izadiak bera zerbitzatzeko eman zizkidan gaitasunak (kriminalak zuretzat, baina sinpleenak

¹ Jaidura bizi eta grina gogor horientzat

niretzat) bide zitaletan oinarritu izana beste funtsik ez dute nire bihotz-zimikoek. Batzuetan aurre egin izan diot² eta damu naiz. Zure sistemen zentzugabekeriak itsututa, askozaz dibinoagoa zen inspirazioaren graziaz jaso nituen desiren bortxari aurre egin nion horren izenean, eta orain damu naiz. Loreak baino ez ditut bildu, fruitu-uzta oparo on bat biltzeko aukera izan banuen ere... Horra zeintzuk diren zehatz-mehatz nire damuaren arrazoiak; estima zaitez niri horrez beste ez leporatzeko adina.

APAIZA

Noraino arrastratzen zaituzten zure okerrekin, noraino zure sofismekin! Sortutako objektuari kreatzailearen ahalmen osoa ematen diozu; ez duzu ikusten galdu zaituzten jaidura zoritxarreko horien jatorria halako guztiahaltasuna leporatzen diozun izaera ustel horixe dela.

HIL ZORIAN DAGOENA

Lagun, zure dialektika zure izpiritua bezain faltsua dela iruditzen zait. Gustatuko litzaidake ziurtasun handiagoz arrazonatuko bazenu, edo bakean hiltzen utziko bazenit. Zer ulertzen duzu zuk kreatzaileaz eta zer izaera ustelaz?

APAIZA

² Izadiari

Kreatzailea Unibertsoaren jabea da dena egin duena, dena sortu duena, eta bere guztiahaltasunaren berezko emaitza gisa dena bere esku daukana.

HIL ZORIAN DAGOENA

Hona hemen gizaseme handi bat, dudarik gabe... Baina orduan, hain boteretsua den gizaseme horrek zer dela-eta sortu duen zuk izaera ustela deitzen duzuna?

APAIZA

Meriturik bat ere izango al zuten gizakiek Jainkoak aukeramena utzi izan ez balie? meriturik izango al zuten, ba, lur gainean ongia egin eta gaizkia saihesteko aukerarik izan ez balute?

HIL ZORIAN DAGOENA

Beraz, zure jainkoak dena alderantziz egin nahi izan zuen, bere kreatura tentatu edota aproban jartzeko. Ez zuen ezagutzen ala? ez al zuen emaitza barruntatzen?

APAIZA

Ezagutzen zuen, noski; baina aukeramenaren meritua utzi nahi izan zion osteria ere.

HIL ZORIAN DAGOENA

Zertarako? Gizonak hartuko zuen norabidea baldin bazekien, zergatik ez zion bultz egin bide onetik jarraitzera, haren esku zegoenez gero? Ez al duzu esan, berariaz, guztiahalduna dela?

APAIZA

Nork uler ditzake Jainkoak gizonari buruz dauzkan asmo handiak eta infinituak, eta nork uler dezake ikusten dugun guztia?

HIL ZORIAN DAGOENA

Gauzak sinplifikatzen dituenak, lagun; eta batez ere, efektuak areago ez iluntzeko, kausak ugaritzen ez dituenak. Zertarako behar duzu bigarren zailtasunik, lehena ere ulertzeko gauza ez bazara? Eta zure jainkoari leporatzen diozuna izadiak erraz egitea posible denez gero, zer dela-eta nahi diozu jabe bat gaineratu³? Ulergaitza egiten zaizunaren arrazoia baliteke munduko gauzarik soilena izatea. Perfekziona ezazu zure fisika eta izadia hobeto ulertuko duzu; garbi ezazu zure arrazoimena, bazter itzazu zure aurreiritziak, eta jada ez duzu zure jainkoaren beharrik izango.

APAIZA

³ Izadiari

Gizagaixoa!, sozinitarra baino izango ez zinelako itxaropena nuen. Zurekin borrokatzeko ondo armatuta nengoen; baina ikusten dudanez, atea zara; eta orosortzailearen existentziaz egunero jasotzen ditugun froga jatorren erabatekotasuna zure bihotzak ukatu egiten duenez, esatekorik gehiago ez dut zuretzat. Ez dago itsuari argia itzultzerik.

HIL ZORIAN DAGOENA

Lagun hori, jar gaitzen ados zerarekin: biotako itsuenak izan behar duela, zalantzarik gabe, begietan benda bat jartzen duena, benda begietatik kentzen duena baino. Zuk eraiki, asmatu, aniztu egiten duzu; nik suntsitu, sinplifikatu egiten dut. Zuk okerrak bata bestearen gainean pilatzen dituzu; nik, berriz, aurre egiten diet oker guztiei. Gutako nor da itsua?

APAIZA

Orduan, Jainkoarengan ez al duzu sinesmenik txikiena ere?

HIL ZORIAN DAGOENA

Ez. Eta benetan sinplea den arrazoi batengatik; ulertzen ez den hartan sinestea guztiz ezinezkoa delako. Ulerkuntzaren eta fedearen artean lotura estuak egon behar dira, ulerkuntza fedearen lehen mantenugaia delako. Ulerkuntzarik

ez dagoen tokian, fedea hilda dago. Eta kasu horretan berataz jabetu nahi luketenek euren buruak engainatuko lituzteke. Predikatzen duzun jainkoarengan sinesteko gaitzat ez zaitut jotzen, haren existentzia niri frogatzen jakingo ez zenukeelako eta halako zehaztapen bat azaltzea zure esku ez dagoelako; eta ondorioz, ez duzu benetan zertan zabiltzan ulertzen. Eta ulertzen ez duzunez, ezin duzu haren aldeko argudio zentzuzkorik nire aurrean jarri. Labur esanda, giza-izpirituaren mugen gainetik dagoen guztia edo ametsa da edo ezdeusa da; eta zure jainkoa gauza hauetako bat edo beste izatea beste biderik ez dagoenez, harengan sinetsiko banu zoroa izango nintzateke lehenengo kasuan, eta ergel handia bigarreanean.

Nire lagun hori, frogaidazu materiaren inertzia eta kreaizailearen existentzia ontzat emango dizut; frogaidazu izadiak bere buruarekin aski ez duela eta jabe bat daukalako eskubidea emango dizut; ordura arte, ez espero nitaz ezer, ebidentziaren aurrean baino ez baitut amore ematen eta nire zentzuek bakar-bakarrik ematen didate horren berri. Horiek non gelditzen diren, bada hortxe gelditzen da indarge nire fedea. Eguzkian sinesten dut hura ikusten dudalako; izadian erregarria den gairik ororen topagunetzat hartzen dut; aldizka egiten duen ibilbidea harritu gabe ikusten dut. Ekintza fisikoa da, argindarra bezain sinplea agian, horren nondik-norakoa ulertzeko modurik ez badaukagu ere. Urrunago joateko

premiarik al dut akaso? zuk zure jainkoa horren guztiorren gainean eraikitzeagatik aurrerapenik egingo ote dut nik? Eta ez al dut antzeko ahalegina egin beharko langilea ulertzeko edota obra zehazteko?

Beraz, zure ametsaren eraiketa dela-medio zerbitzu eskasa egin didazu; nire izpiritua nahastu duzu, bai, baina ez didazu ezer argitu, eta eskerrona baino arrenkura zor dizut. Zure jainkoa zure grinen zerbitzurako jarri duzun makina da, eta nahi duzun bezala ibilarazten duzu. Baina makina hori nire grinak asaldatzen hasi denean, ez zara harrituko lurrera botatzen badut, ezta? Eta nire arima ahulak lasaitasunaren eta filosofiaren beharra zuen momentuan, hain zuzen, ez etorri nigana zure sofismekin hori dena uxatzera, konbentzitu gabe sartuko baitzenidan beldurra eta hobetu gabe nire sumindura piztuko. Adiskide, nire arima da izadiak nahi izan duena, hau da, zituen asmoen eta premien arabera eman nahi izan dizkidan hainbat organuren emaitza; eta bizioak nahiz birtuteak premiazkoak dituenek, lehendabizikoetarantz eraman nahi izan nauenean, halaxe egin du; bigarrenetarantz eraman nahi izan nauenean, zegozkion desirak piztu ditu nigan, eta horien esku utzi nau erreparo handirik gabe. Desirei eta premiei bakarrik erantzuten dieten izadiaren lege horietan bilatzen jakin behar duzu giza-inkonsekuentziaren kausa bakarra.

APAIZA

Beraz, munduan den-dena da beharrezkoa.

HIL ZORIAN DAGOENA

Bai, jakina.

APAIZA

Baina den-dena beharrezkoa bada, orduan den-dena bukatuta dago.

HIL ZORIAN DAGOENA

Nork esan dizu ezetz?

APAIZA

Eta nork erregula dezake existitzen den guztia, ahalguztiduna eta orojakilea den eskua baino?

HIL ZORIAN DAGOENA

Ez al da akaso beharrezkoa bolbora piztea, sutara hurbiltzen zaionean?

APAIZA

Bai.

HIL ZORIAN DAGOENA

Eta zer jakituria aurkitzen duzu horretan?

APAIZA

Bat ere ez.

HIL ZORIAN DAGOENA

Orduan, baliteke jakituriarik gabeko hainbat gauza beharrezko egotea, eta ondorioz, jatorrizko kausaren batetik dena eratortzea, lehenengo kausa honetan ez arrazoirik ez jakituriarik egon gabe.

APAIZA

Nora iritsi nahi duzu?

HIL ZORIAN DAGOENA

Den guztia eta dakusazun guztia existi daitekeela zuri frogatzera —tarteetan esku jakintsu era arrazoizkorik beharrezkoa ez dela gidaritzarako—. Ondorio naturalek kausa naturalak izan behar dituzte, naturkontrako jatorriak leporatu-beharrik gabe (zure jainkoaren kasuan gertatuko litzatekeen bezala), zeren berriz diot: hura azaldu beharko genuke aldi berean azalpenik eman gabe. Beraz, zure jainkoak ezertarako balio ez duen momentutik, erabat ezdeusa da. Ezdeusa baliogabea dela eta baliogabea ezdeusa dela suposatzen da. Hori dela eta, zure jainkoa ametsa baino ez dela konbentziturik egoteko, baliogabea

den ziurtasunak ematen didana baino beste arrazonamendurik ez dut behar.

APAIZA

Hori guztia kontuan hartuta, azalezkoa iruditzen zait zurekin erlijioari buruz hitz egitea.

HIL ZORIAN DAGOENA

Zergatik ez, gero? Ezertaz ez naiz gehiago jostatzen erlijio-gaietan gizonek erdietsi duten gehiegikeriaz baino; fanatismoa eta ergelkeria hain galbide miresgarriak dira, ezen, halako ikuskizuna, nire ikuspegitik, ikaragarria izan arren, beti da interesgarria. Erantzuzu orain jatortasunez eta batez ere barter ezazu zure egoismoa. Erlijioa beharrezkoa egiten duen izakiaren existentzia harrigarriari buruzko zure sistema barregarriek ni ustekabean harrapatzen uzteko bezain ahula izango banintz, zer itxura-pean aholkatuko zenidake gur egitea? Nahiago izango al zenuke Konfuzioren ameskeriak nire egitea, Brahamaren bitxikeriak baino? Gurtu behar al ditut beltzen suge erraldoia, peruarren astroa edo Moisesen armaden jainkoa? Mahomaren sektetariko zeinetara gustatuko litzaizuke ni konbertitzea? Edota kristauen heresietatik zein izango litzateke onena zuretzat? Kontuz ibili erantzun baino lehen.

APAIZA

Zer erantzungo dudan zalantzan al duzu?

HIL ZORIAN DAGOENA

Horrek esan nahi du egoista dela.

APAIZA

Sinesten dudan aholkua zuri ematea zu nire burua adina maitatzea da.

HIL ZORIAN DAGOENA

Ez, tamaina horretako okerre kasu egitea gu biok ezer gutxi maitatzea da.

APAIZA

Baina ba ote dago inor gure jainkozko erredentorearen mirariak ez ikusteko bezain itsu denik?

HIL ZORIAN DAGOENA

Bilaurik arruntena eta iruzurtirik handiena harengan ikusten ez duena.

APAIZA

Oi, jainkook, entzun diozue eta ez duzue trumoirik egin!

HIL ZORIAN DAGOENA

Ez, lagun hori, dena bakean dago, zure jainkoa (bai ezintasunagatik bai zentzutasunagatik bai beste edozein arrazoigatik —zurekiko amoreak bultzata edota, nahiago baduzu, zure asmo zirtziletarako ni prestatzeko une batez bakarrik onartzen dudan izakia—) existitzen baldin bada, zure zorotasunak nahi duen bezala, gu konbentzitzearren ezin izan ditu erabili zure Jesusek aditzera ematen dizkigutenak bezain baliabide barregarriak.

APAIZA

Nola! ez al dira nahikoa frogak profeziak, mirariak, martiriak?

HIL ZORIAN DAGOENA

Arrazoizkoa iruditzen ote zaizu frogatuta ez dagoena nik frogatzat hartzea? Profezia froga bihurtzeko, beharrezkoa izango litzateke, lehenik, burutua izan den ziurtasuna izatea; baina, historian idatzita baino ez dagoenez, gainerako egite historikoenak baino indar handiagorik ezin du izan, lautatik hiru zalantzarriak izaten baitira guztiak. Egitateok historialari interesatuek helarazten dizkigutela soberan sinesgarria den susmoa guzti honi gehitzen badiogu, orduan, eta ikusten duzunez, zalantza egiteko eskubide osoa izango dut. Nork ziurtatzen dit, bestalde, profezia hau ez

dela *a posteriori* egina izan? ez dela politika oso simple baten emaitza baino, esaterako, errege zuzen baten mendean zegoen erresuma zoriontsu bat edota neguko izozte bat ikustea? Hori guztiori kontuan hartuta, nola nahi duzu hainbeste froga behar dituen profezia bera ere froga bihurtzea?

Zure mirariei dagokienez, jada ez naute engainatzen. Halakoak alproja guztiek egin dituzte eta ergel guztiek sinetsi. Mirari baten egiazkotasunean sinesteko, horrela deitutako gertaerak izadiaren legeak guztiz aurka dituela konbentziturik egon beharko nuke, bitxia dena soil-soilik har baitaiteke miraritzat. Baina nork du soberazko ezagutza, jakiteko, zein puntutan gelditzen den eta zein puntutan pasatzen den aurrera? Ustezko mirari bat egiaztatzeko bi gauza baino ez dira behar: funanbulista bat eta emakumetxo batzuk; tira, ez zaitez saiatu ere egin zurei beste jatorririk bilatzen, hori sektario hasberri guztiek egin dute-eta; are bitxiagoa dena, denek aurkitu dituzte haiengan sinetsi duten pepelerdoak. Zure Jesus ez da Tianako Apolo baino originalagoa izan; hala ere, inori ez zaio bururatu beste hura jainkotzat hartzea. Bestalde, zure argudiorik ahulena zure martiriei dagokiena da, zalantzarik gabe; berotasuna eta gogortasuna baino ez da beharrezkoa hori izateko. Aurkako kausak zureak adina martiri eskaintzen dizkidan arte, ez dut bata bestea baino hobeagoztat jotzeko autoritaterik izango. Biak, ordea, urrikalgarriztat jotzeko joera benetan handia sumatzen dut nigan.

Ah, lagun hori, aldarrikatzen duzun jainkoa benetan existituko balitz, izango al luke mirari, martiri eta profezien beharrik bere inperioa finkatzeko? Eta, esaten duzunez, gizakiaren bihotza obratzat izango balu, ez al litzateke leku hori izango bere legerako berak aukeratutako santutegia baino? Lege zuzen hau, jainko zuzen batetik isuria, denon barruan ezinbestez grabatuta legoke, eta munduko bazter guzti-guztietako gizonek, organo samur eta sentikor honen bidez berdinak izango zirenez, hura jasoko zuten jainkoari gur egingo liokete; denek izango lukete hura maitatu, gurtu edota zerbitzatzeko modu bakar bat, eta orobat ezinezkoa gertatuko litzaieke jainko horri bizkar ematea edota hura gurtzeko sentituko zuten jaidura intimoari aurka egitea. Zer dakusat munduan horren lekuan ordea? Herri adina jainko, jainko horiek omentzeko modu adina pentsamolde edo irudimen-mota. Eta iritzi-aniztasun hau, zeinetaz ia ez daukadan aukeraterik, hori izango al zen zuretzat jainko zuzen baten obra? Tira, predikatzaile horrek, zure jainkoa iraintzen duzu hartaz halako aurkezpena egitean. Utzidazu dena ukatzen, zeren existitzen bada, gutxiago iraintzen dut nik hura neure sinesgabeziak zuk zeure blasfemiez baino. Itzul zaitez zentzura, predikatzaile, zure Jesus horrek ez du eta Mahomak baino gehiago balio, ez Mahomak Moisesek baino gehiago, eta hirurok ez Konfuziok baino gehiago —azken honek printzipio on batzuk eman bazituen ere; artean beste hirurak eldarniotan

aritu ziren—. Baina, orokorrean, pertsonaia hauek guztiak iruzurtiak baino ez dira, zeinetaz filosofoak barreak egin dituen, zeinengan herri xeheak sinetsi duen eta zeinak justiziak urkatu beharko zituen.

APAIZA

Ai, justizia hori lauetariko bakar batekin izan da gupidagabea.

HIL ZORIAN DAGOENA

Gehien merezi zuenarekin: sediziozile, istiluzale, kalumnizatzaile, alproja, lizun, iruzurti zakar eta gaizkile arriskutsua zelako. Herria herrestan eramateko arteaz asko zekien eta ondorioz Jerusalemena bezalako egoeran egonda zigorra merezi zuen. Hartaz libratzean zentzu handia erakutsi zuten, eta nire printzipioek — berariaz, txit neurritsuak eta jasanberak direnek— Temis-en zorroztasuna onar dezaketen kasu bakarra da. Akats guztiak barkatzen ditut, bizi gareneko ordenarako arriskutsuak direnak izan ezik; errege-erreginek eta beren maiestateek behartzen nauten gauza bakarrak dira, errespetatzen ditudan bakarrak. Bere herria eta bere erregea maite ez dituenak ez du bizitzea merezi.

APAIZA

Dena dela, zer edo zer onaru beharko duzu bititza honen osterako; ezinezkoa da zure izpiritua

noizbait ez saiatzea itxaroten gaituen patuaren ilunpeak zeharkatzen. Eta zein sistemak asebate zezakeen hobekien gaizkian bizi denari nahigabepiloa eta ongian bizi denari betiereko saria gordetzen duen hura baino?

HIL ZORIAN DAGOENA

Zein sistemak? Bada ezerezarenak, adiskide. Inoiz ez dit beldurrik sartu, eta gauza kontsolagarriagorik eta sinpleagorik ez dut kausitzen. Gainerako guztiak harrokeriaren emaitza dira; honako hau, berriz, soil-soilik arrazoimenarena. Edozein modutan ere, aipatu dizudan ezereza ez ikaragarria ez erabatekoa da. Ez al dut neronen begien aurrean izadiaren behin eta berrizko sorreren eta sorkuntzen adibidea? Ezer ez da ezeztatzen, lagun, ezer ez da mundu honetan suntsitzen; gaur gizona, bihar harra, etzi eulia; ez al da existitzea beti? Eta zergatik nahi duzu nik birtuteengatik saririk jasotzea, horien aldeko meriturik egin ez badut, edo nik zigorra jasotzea, saihestu ezin izan ditudan hilketengatik? Nola edo hala bateratu al dezakezu zure ustezko jainkoaren borondatea sistema honekin? litekeena al da berak ni sortu izana soil-soilik ni zigortzeko atseginaz gozatzeko, eta hori guzti ori aukerarik uzten ez didan aukera baten kariaz?

APAIZA

Aukerarik baduzu.

HIL ZORIAN DAGOENA

Bai, zure aurreiritzien arabera; baina arrazoimenak horiek denak suntsitu egiten ditu. Gizonaren askatasunaren sistema bakarrik asmatu zuten graziaren beste sistemari eusteko, zuen ilusioen zeharo aldekoa zelako. Esaidazu, zein gizonek mundu honetan, urkamendiaren irudia aurrez aurre ikustean, egingo luke hilketa bat, horrelakorik ez egiteko askatasuna izango balu? Indar jarkiezin batek herrestan eramaten gaitu eta une batez ere ez gara gure buruaren jabe —tiratzen gaituenaren aldeko aukera egiteko ez bada—. Ez dago birtuterik izadiarentzat beharrezkoa ez denik, eta modu berean, hilketarik bakar bat ere ez horren premiarik ez duenik. Hain zuzen, batzuen eta beste batzuen artean mantentzen duen oreka perfektuan datza bere jakituria osoa. Berak jaurkitzen gaitu bidera eta hala eta guztiz ere gu ote gara errudunak? Ez, behintzat, larruazalean eztena sartzen digun liztorra bainoago.

APAIZA

Horren arabera, hilketarik okerrenak ez al digu ikararik handiena sentiarazi behar?

HIL ZORIAN DAGOENA

Nik ez dut hori esan; legeak kondenatzea eta justiziaren ezpatak zigortzea nahikoa da ikara

edota izua denoi sentiarazteko. Zoritxarrez, egin eta gero, beharrezkoa da egiteei aurpegi eman eta bihotz-zimiko antzuetan ez amaitzea, hartatik babesten ez gaituztenez ez dute-eta ezertarako balio; eta ezdeusak direnez, ez dute-eta ezer konpontzen. Zentzugabea da horietan amiltzea, baina are zentzugabeagoa litzateke beste munduan zigortuak izateko beldur izatea, mundu honetan zigorra saihesteko zortea izan badugu. Noski, honekin ez dut hilketara bultza egin nahi; beharrezkoa da ahal den guztia egitea hura saihesteko, baina arrazoimenaren bidez hartatik ihes egiten jakin beharra dago, eta ez inora ez daramaten beldur faltsuen bidez, zeinen ondorioak laster suntsituak baitira gutxi finkatuta dagoen ariman. Arrazoimenak, bai, lagun hori: bakar-bakarrik arrazoimenak ohartarazi behar gaitu, ezen, lagun-hurkoei kalte egiteak ezin digula zorionik ekarri; eta gure bihotzak adierazi behar liguke, ezen, besteen zorionaren alde egitea izadiak Lurraren gainean eman digun atseginik handiena dela. Giza-moral osoa esaldi bakun honetan bilduta dago: *batek desiratu nahi lukeena bezain zoriontsu bihurtzea besteak* eta batek jasan nahi lukeena baino kalte handiagorik ez egitea inoiz.

Hona hemen, adiskide, hona hemen jarraitu behar ditugun printzipio bakarrak, eta horiek preziatu eta onartzeko ez erlijiorik ez jainkorik da beharrezkoa, bihotz ona baino ez da behar eta. Akituta sentitzen naiz, ordea; predikatzaile horrek, laga itzazu zure aurreiritziak, izan zaitez gizona,

izan zaituz gizona, beldurrik gabe eta itxaropenik gabe; bazter itzazu zure jainkoak eta zure erlijioak; horrek guzti horrek bakarrik balio du gizonen eskuetan armak jartzeko, eta izugarrikeria guztiorien aipamen soilak gerra eta zigorkada guztiek batera eragindakoa baino odol gehiago isurarazi du lur gainean. Uko egin beste mundu baten ideiarri; ez dago holakorik eta. Baina ez egin uko mundu honetan zoriontsua izateko eta besteen zoriona ahalbidetzeko plazerrari. Hori da izadiak eskaintzen dizun aukera bakarra zure existentzia bikoiztu eta zabaltzeko. Nere laguna, boluptuositatea nire ondasunik maiteenea izan zen beti; bizitza osoan loriatu dut eta haren besoetan amaitu nahi izan dut. Nire amaiera hurbil dago; eguna baino ederragoak diren sei emakume zain daude ondoko kabinetean: une honetarako gordetzen nituen; har ezazu zure parte; nire ereduari jarraituz, saia zaituz sineskeriaren sofisma hutsal guztiak eta hipokresiaren oker ergel guztiak ahazten haien bularren gainean.

OHARRA

Hil zorian dagoenak deitzen du, emakumeak sartzen dira eta predikatzaileria izadiak usteldutako gizon bilakatzen da haien besoetan, izaera ustela zer zen azaltzen ez jakiteagatik.